

> artikulua**1** bat aldizkarian argitaratzeko irizpideak

BAT aldizkarian artikulua argitaratzeko eskaerarekin batera, egileek ziurtatuko dute euren lanek ondoren zehazten diren irizpideak betetzen dituztela.



> ARTIKULUAREN GAIA

- Euskal soziolinguistikaren esparruko ikerketa-lana
- Euskararen biziberritze-prozesura hurbiltzen diren beste diziplinetako ikerketa-lana (antropologia, psikologia, komunikazioa e.a.)
- Euskararen normalizazioa eta hizkuntza-plangintza
- Euskal soziolinguistika saileko saiakera
- Nazioarteko soziolinguistikaren arloko ikerketa

> HIZKUNTZA

- Artikuluak euskaraz argitaratuko dira, eta horrela bidaltzea eskatuko da.
- Artikuluaren laburpena eta hitz gakoak euskaraz eta ingelesez argitaratuko dira. Egileak aukera izango du atal horietako ingeleseko itzulpenak igortzeko; gainerakoan editore-taldea arduratuko da eginkizun horretaz.

> ZUZENKETA

Euskara batuaren arauen arabera zuzenketa ortografikoa errespetatuz (Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzea gomendatzen da).

> HIZKUNTZA EGOKIA

Ez da onartuko idazkera diskriminatzailearik. Ezin da kontzeptu sexistarik edota arrazistarik erabili.

> LUZERA

25.000-40.000 karaktere bitartekoa, zuriuneak barne.

> EGITURA

- Izenburu-orria:
 - Artikuluaren egile guztien informazioa: izena eta bi abizenak, afiliazioa(k) eta helbide elektronikoa(k)
 - Laburpena: gehienez 1000 karaktere.
 - Hitz-gakoak: 4-5 hitz.
- Testu nagusia (azpi-atalak eta izenburuak adierazi):
 - Sarrera
 - Marko teorikoa edota testuingurua
 - Metodologia
 - Emaitzak
 - Ondorioak
- Eskertzak (Beharrezkoa bada)
- Bibliografia
- Eranskinak (Beharrezkoa bada)

> TIPOGRAFIA

Letra tipoa: Testua 1,5 lerroartearekin; testu-gorputza 12 puntukoa eta letra-tipoa, Arial, Times New Roman, Calibri...

> ILUSTRAZIOAK

- Lerro eta zutabeetan ematen den informazioa TAULA bezala emanda.
- TAULAK, IRUDIAK eta GRAFIKOAK zuri-beltzekoak.
- TAULAK, IRUDIAK eta GRAFIKOAK izendatuta eta kronologikoki zerrendatuta.
- Kasu guztietan iturria adierazita.
- Irudien kasuan jpg edo tankerako formatuan.
- Grafikoen kasuan jatorrizko formatua ere bidali (Excel...)

> OIN-OHARRAK

Ohar bakoitza oin-ohar gisa gehitu, 10 puntuko testua osatuz.

> ESTILOA: ERREFERENTZIA, AIPUAK ETA BIBLIOGRAFIA

Chicago 17. Egilea - Urtea estilo-ereduari jarraituko zaio

> ERREFERENTZIA

- Egile bakarra denean deitura eta urtearen artean ez da komarik jarriko: (Zubiaga 2012).
- Bi edo hiru egile direnean bi deiturak "eta" baten bidez bereziko dira, eta koma jarriko zaio urtearen aurretik: (Suay eta Sanginés, 2010).
- Hiru egiletik gora direnean (et al.) idatziko da letra arruntez: (Martí et al. 2005).

> AIPUAK

- Aipu laburrak. "komatxo" artean testuan bertan jasota: [...] (Altuna 2017).
- Aipu luzeak. Aparteko pasartean idatziko dira. Amaierako puntua erreferentziaren aurretik jarrita: [...] (Altuna 2017)

> BIBLIOGRAFIA

- **Liburuen kasuan:** Egilearen abizena(k) eta izen osoa. Argitaratze-urtea parentesirik gabe. Izenburua letra etzanez idatzia, argitalpen hiria eta argitaletxea.
 - Esteban, Mari-Luz. 2017. *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Susa-Lisipe.
 - **Hainbat egile badira:** Egileen izenak lanaren azalean azaltzen den hurrenkeran adieraziko dira, komaz berezita. Lehen egilearen abizenak eta izen osoa, eta ondorengo egileen izen-abizenak alderantzizko ordenan. Azken izenaren eta azken aurrekoaren artean, koma beharrean «eta» erabiliko da. Argitaratze-urtea parentesirik gabe. Izenburua letra etzanez idatzia, argitalpen hiria eta argitaletxea:
 - Altuna, Olatz, eta Asier Basurto. 2013. *Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gidametodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
 - **Liburuen kapituluaren kasuan:** Egilearen abizenak eta izen osoa jarriko da. Ondoren argitaratze-urtea parentesirik gabe. In *liburuaren izenburua: azpititua*. Argitaratzailea: izen-abizenak, hasierako orrialdea-amaierako orrialdea. Hiria Argitaletxea.
 - Muhlhäusler, Peter. 2005. «Hizkuntz komunitateak». In *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Martí, Felix, Paul Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña, Patxi Juaristi, Carme Junyent, Belen Uranga eta Estibaliz Amorrortu. Bilbo: Unesco Etxea.
 - **Artikuluen kasuan:** Egilearen abizenak eta izen osoa jarriko da. Ondoren argitaratze-urtea parentesirik gabe. Izenburua komatxoaren artean, aldizkariaren izena letra etzanez, zenbakia eta orrialde zenbakia.
 - Zalbide, Mikel. 2015. «XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan», *Hermes* 50: 10-29.
 - **Interneteko dokumentuen kasuan:** Egilearen abizenak, izena (argitalpen-urtea), dokumentuaren izena, url-a eta kontsulta-data (urtea-hilabetea-eguna).
 - Agirre, Lorea (2015). «Euskara partekatzen duguna» 19. Korrikako mezua. <http://topagunea.eus/euskara-partekatzen-duguna/> [Azken kontsulta: 2019-10-05]
-